

1. Informazioa eta datuen tratamendua

1.1. Nabigazioa, bilaketak eta informazioaren filtratzea, datuak eta eduki digitalak:

1.1.1 Gaiaren definizioa eta testuinguruan kokatzea

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala

Informazioa eta datuen
tratamendua.

Nabigazioa, bilaketak eta
informazioaren filtratzea,
datuak eta eduki digitalak

GAIAREN DEFINIZIOA ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA




CRUE

REBIUN

Red de Bibliotecas Universitarias

HELBURUAK

Jarduera hau egin ondoren, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



LABURPENA

- Lanaren gaia definitu
- Gako-hitzak identifikatu
- Sinonimoak eta hitz alternatiboak pentsatu
- Probatu zure bilaketa estrategia
- Bilaketarako aholkuak
- Gehiago jakiteko...

LANAREN GAIA

Lanaren gaia esaldi bakarrera murrizteko modukoa izan behar da.

Zure lanak erantzun ditzakeen galdera batzuk pentsatu.

Behin gaia aukeratutakoan:

1

Identifikatu kontzeptu garrantzitsuenak, **gako-hitzak**.

2

Pentsatu **sinonimoak** eta hitz alternatiboak.

3

Probatu zure **bilaketa estrategia** identifikatutako gako-hitzak erabiliz.



1

GAKO-HITZAK IDENTIFIKATU

Imajinatu hau dela zure lanaren gaia, jakingo zenuke gako-hitzak identifikatzen?

Telefonia mugikorreko gailuen zer-nolako erabilera egiten ari dira gaur egun euskal gazteak eta zer-nolako eragina dauka horrek hezkuntzan?

Gogoratu bilaketa hitz hauek bibliotekaren katalogoan, bilatzaileetan, datu baseetan, etab. informazioa bilatzeko erabiliko dituzula.

Azpimarratutako kontzeptu guztiek garrantzitsuak dirudite, ezta? Bilaketa estrategietarako gako-hitz moduan erabili ditzakezula uste duzu?

Egiaztatu hurrengo orrian!

1

TELEFONIA MUGIKORREKO GAILUEN ZER-NOLAKO ERABILERA EGITEN ARI DIRA GAUR EGUN EUSKAL GAZTEAK ETA ZER-NOLAKO ERAGINA DAUKA HORREK HEZKUNTZAN?

GAUR EGUN



Ez da bilaketarako hitz egokia. Egungo informazioa aurkitu nahi baduzu bilaketaren emaitzak kronologikoki filtratu behar dituzu.

GAZTEAK



Bilatu nahi duzuen informazioa norekin lotuta dagoen definitzen du, beraz, erabili beharreko hitza da.

EUSKAL



Gako-hitz honek zure lanaren gaia geografikoki kokatzen du.

GAILUAK



Ez da gako-hitz egokia. Telefonia mugikorra edo telefono mugikorrak bilatuta nahikoa izango duzu.

TELEFONIA MUGIKORRA



Zure laneko ideia garrantzitsuenetariko bat da, beraz, hitz hau erabili beharko duzu.

ERAGINA



Ez da bilaketarako hitz egokia. Gai honen eraginari buruz gehiago jakin ahal izango duzu aurkitutako informazio garrantzitsuena kontsultatzen duzunean.

HEZKUNTZA



Zure lanean ideia garrantzitsua da, eta beraz, informazioa bilatzean erabili dezakezun kontzeptua da.

2

SINONIMO ETA HITZ ALTERNATIBOAK PENTSATU

Orain forma alternatiboetan pentsatu beharko duzu: sinonimoak eta hitz alternatiboak beste hizkuntza batzuetan, hitz orokorragoak edo zehatzagoak, informazio bilaketan erabili ahal izateko



GAZTEAK: nerabeak, mutil/neska,...

EUSKAL: Euskal Herria, Donostia,...

TELEFONIA MUGIKORRA: mugikorrak, telefono mugikor,...

HEZKUNTZA: irakaskuntza, ikasgelak,...

Garrantzitsua da, batez ere, **ingelesezko gako-hitzak** bilatzea, hizkuntza horretan dauden datu baseetan egin beharko dituzu bilaketak eta.


Kontsultatu MUren webguneko [hiztegi eta entziklopedien](#) gida gako-hitzak beste hizkuntza batzuetan aurkitzeko

BILAKETARAKO AHOLKUAK




Sarritan, datu baseetan gai bati buruzko informazioa bilatzeko hitz bat baino gehiago erabili beharko dituzu. Bi hitz edo gehiago konbinatu ahal izateko, **operadore boolearrak** erabili ditzakezu.

AND




Bilaketa honekin emaitza gutxiago lortuko dituzu, baina zehatzagoak izango dira. Berreskuratutako dokumentuek bi hitzak izango dituzte.

OR



Operadore honek bilaketa zabaltzen du (emaitza gehiago). Berreskuratutako dokumentuek gutxienez bi hitzetako bat izango dute. Sinonimoak konbinatzeko balio du.

NOT




Operadore honekin bilaketatik emaitza batzuk kanpoan utziko dituzu. Berreskuratutako dokumentuek hitzetako bat izango dute baina bestea ez.

BILAKETARAKO AHOLKU GEHIAGO

Operadore boolearrez aparte, bilatzaile eta datu base gehienek bilaketak hobetzeko funtzio eta sinboloak erabiltzen uzten dute.

Hauek dira erabilienak:



“ ”
■ ■ ■

**ESALDI
ZEHATZA**

Hitz konposatuak edo esaldi zehatzak berreskuratzeko, idatzi komatxo artean bilaketa-koadroan: **“giza anatomia”**.

Komatxoak erabili ezean, hitzak banatuta berreskuratuko dituzu, giza alde batetik eta anatomia bestetik eta erabilgarriak izango ez diren emaitza asko lortuko dituzu.

*

TRUNKATZEA

Hitz baten bukaera posible guztiak berreskuratzeko: **Enpres*** enpresa, enpresetan, enpresaburu, etab. berreskuratuko ditu.

EZ DITUZU ESPERO ZENITUEN EMAITZAK LORTU?

EMAITZA ASKO?	EMAITZA GUTXI?	BESTE AHOLKU BATZUK
<p>Gehitu hitz garrantzitsu gehiago eta konbinatu AND operadorearekin.</p> <p>Ezabatu trunkatzeak (*).</p> <p>Bilatu eremu zehatzetan (adibidez, mugatu izenburura).</p> <p>Erabili datu base edo bilatzaile bakoitzaren iragazkiak data, hizkuntza, etab. mugatzeko.</p>	<p>Gehitu sinonimoak eta konbinatu OR operadorearekin.</p> <p>Erabili trunkatzea hitz baten aldaera guztiak aurkitzeko.</p> <p>Zabaldtu bilaketa eremu orokorragotara (adibidez, denetara edo laburpenera).</p> <p>Ezabatu garrantzitsuenak ez diren gako-hitzak.</p>	<p>Hasi bilaketa zabal batetik eta gehitu hitzak bata bestearen ondoren.</p> <p>Artikulu interesgarri bat aurkitzen baduzu, begiratu horren bibliografia.</p>

GEHIAGO JAKITEKO...

Begiratu MUko Bibliotekaren gida “[Nola bilatu informazioa Bibliotekan](#)”.



**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



**Basque Culinary Center
Biblioteka**

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101
20009, Donostia, Gipuzkoa.
T. 943574514
biblioteca@bculinary.com

**Enpresa Zientzien Fakultatea
Biblioteka**

Ibarra Zelaia, 2
20560, Oñati, Gipuzkoa.
T. 943718009
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Biblioteka**

Dorleta, z/g.
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.
T. 943714157
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

**Goi Eskola Politeknikoa
Biblioteka**

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.
T. 943794700
biblioteca.mgep@mondragon.edu